**PRENTSA OHARRA**
**09-10-09**

# Kiroljokoa apustuak Urrakira Igoeran

**Igandean**, 10.00etatik aurrera, **Urrakira Igoeraren 27. edizioa** ikusi ahal izango dugu eta **Kiroljokoa** motorrak berotzen hasi da, dagoeneko lasterketaren apustuak eskainiz bere apustu-gune guztietan (ikusi kokapenak www.kiroljokoa.com-en).

**Lagun-Artea Eskuderiak** antolatutako lasterketaren 6,5 kilometroak igotzen azkarrena izateko hautagai nagusiak **Aitor Zabaleta,** bere Lola Diamanterekin, eta **Iñigo Martinez,** bere Silver Car S2arekin, dira. Hori erakusten dute ere **Kiroljokoa** apustuek, Zabaleta faborito ematen dute eta.

**Urrakira Igoeraren irabazlea**

| PILOTUA | KUOTA | PILOTUA | KUOTA |
|---|---|---|---|
| | | | |
| A. Zabaleta | 1, 15 | I. Martínez | 2,45 |
| A. Alonso | 4,10 | P. Egozkue | 15 |
| I. Alberdi | 23 | I. Olabegogeaskoetxea | 35 |
| A. Ramírez | 40 | R. Apalantza | 40 |
| J. Labaka | 40 | R. Nogueiras | 40 |
| R. Tricio | 40 | A. Castro | 40 |
| X. Beloki | 40 | Josetxo Zapiain | 40 |

**Kuota hauek aldatu egin daitezke.*

## Kiroljokoa, motorreko katalogo zabalena

**Kiroljokoak motorraren aldeko apustua** egiten du, izan ere, 1 Formula, Motorrak eta froga internazionalak eskaintzeaz gain, **jarraipen berezia** egiten dio Euskal Herriko Rally, Rallysprint

eta Igoerei. **Kiroljokoak** apustuaren bidez zaletuei lasterketak gertuago bizitzeko aukera ematen die. Dudarik gabe, pilotu bakoitzaren jarraitzaileen arteko “pikeak” isladatzeko modua, kirol honetaz **nork dakien gehien erakutsiz**.

## Kiroljokoa kirolarekin bat

Gainera, **Kiroljokoak** motorraren alde egiten duen apustua Euskal Herriko zenbait eskuderiekin egindako **babesletza akordioetan** nabarmentzen da, hauen artean **Lagun-Artea** aurkitzen delarik. Laguntza hau **Kiroljokoak** kirolarekin, eta bereziki gure inguruko taldeekin, duen konpromezuarekin bat dator.